



Eskola Kirola – 2017-2018ko lehiaketako araudia

ATLETISMOA

ARAUDI OROKORRA

1 · KATEGORIAK ETA ADINAK

- Benjaminak, mutilak eta neskak, 2008 eta 2009 urteetan jaiotakoak
- Kimuak, mutilak eta neskak, 2006 eta 2007 urteetan jaiotakoak
- Haurrak, mutilak eta neskak, 2004 eta 2005 urteetan jaiotakoak

2 · ESKOLA JOKOEN JARDUNALDIAK

- Atletismoko Eskola Jokoen jardunaldietan egitarau ugari izango da, baina azarotik maiatzera bitartean egingo dira.
- Jardunaldien egutegiek bi aldi izango dituzte: neguko egutegia eta udako egutegia. Aldi bakoitzeko lehenengo jardunaldia izan baino gutxienez hamar egun lehenago emango dira ezagutzera bi aldi horiek.

3 · MODALITATEAK:

- Krosa / Landa zehar
- Pista (aire zabalean / estalitako modulua)

4 · ESKOLA LIZENTZIA

- Eskola lizentzia eduki behar da nahitaez.

Erakundeak (ikastetxea, kluba,...) kirolarien lizentziak izapidetuko ditu Arabako Foru Aldundiaren aplikazioaren bidez, "Atletismoa Lehiaketa" jardueran.

- AAFk atleten lizentziak egiaztatuko ditu AFaren aplikazioan; kirolaria agertzen ez bada, ezin izango da lehiatu.

5 · INSKRIPZIOAK

- Kirolarien inskripzioak Arabako Atletismo Federazioak izapidetuko ditu. I. eranskineko inskripzio orria erabili behar da. 20 kirolari baino gehiago dituen entitateek kategori bakoitzarako orri bat erabili beharko dute.
- Atleten inskripzioarekin batera eskola lizentziaren fotokopia bat aurkeztu behar da. Lizentziarik gabe aurkezten diren inskripzioak ez dira izapidetuko. Lizentzia "izapidetzen" badago, erakundeak kirolariaren altaren kopia bat aurkeztu beharko du, Arabako Foru Aldundiak zigilatuta.
- Kirolaria behin bakarrik inskriba daiteke, denboraldi osoan zehar.
- Erakunde baxa hartzen duen kirolariak horren berri eman beharko dio Arabako Atletismo Federazioko Eskola Kirolaren arduradunari, inskribatutakoen zerrendan baxa eman diezaion.



6 · ESKOLA ZENBAKIA

- Atleta bakoitzari zenbaki bat esleituko zaio denboraldi osorako.
 - Eskola Kirolari buruzko Jardunaldi guztietan eraman behar du zenbaki hori.
 - Zenbakia bularrean eraman behar du, ikusteko moduan eta kateorrazekin lotuta; atletak eraman behar ditu kateorrazak.
 - Atletak zaindu behar du zenbakia galdu edo hondatzen ez dela.
- Arabako Atletismo Federazioko Eskola Kirolaren arduradunak oraindik zenbakirik jarrita ez duten oihalak emango dizkio erakunde bakoitzari denboraldia hasten denean; horrela, erakundeek ordezkatzeko dituzte galtzen diren zenbakiak.

7 · JANTZIAK

- Ordezkatzen duen erakundearen kamiseta ofiziala jantzi behar du atletak Eskola Jardunaldi guztietan.
- Baina Arabako Selektzioko atleta moduan parte hartzen duen Eskola Jardunaldietan (Euskadiko Eskola Jokoetan, haurren kategorian), Arabako selekzioaren kamiseta jantzi behar du.

8 · SARIAK

- Sailkapenean lehenengo geratzen direnek ez dute saririk jasoko, parte hartu duten atleta guztiei sari berdina ematen zaienean izan ezik.
- Azken faseetan ez da saririk emango, ez banakoei ez taldeei.
- Arabako Eskola Jokoetan parte hartzen duten atleta guztiek sari bat jasoko dute parte hartu harteagatik, betiere AFAk badauka, eta jokutzen den azken jardunaldian emango da.

9 · ESKOLA KIROLEKO BATZORDEA

Honako hauek osatuko dute Eskola Kiroleko Batzordea:

- Arabako Atletismo Federazioko Eskola Kirolaren arduraduna
- Arabako Atletismo Federazioko Kategoria Txikien arduraduna
- Arabako Atletismo Federazioko zuzendari teknikoa
- Arabako Atletismo Federazioko ordezkari bat
- Arabako Foru Aldundiko Eskola Kirolaren arduraduna

AAFko Batzorde Teknikoak emandako ebazpenek erreklamaziogilearekin den auzia konpontzen ez dutenean baino ez du hartuko parte Eskola Kiroleko Batzordeak.

10 · ERREKLAMAZIOAK

A) Jardunaldiren batean erreklamaziorik egin nahi bada, ahoz azalduko zaio probako epaile-arbitroari. Gertaera jazo eta 30 minutu igaro daiteke gehienez, eta arbitroak ahoz emango du epaia. Ebazpen horren aurka erreklamazioa jarri ahal izango zaio AAFko Batzorde Teknikoari. Erreklamazio hori gertakaria gertatu ondorengo asteleheneko 20:00ak baino lehen aurkeztuko da. Ondoren, AAFko Batzorde Teknikoak hura aztertu eta epaia idatziz jakinaraziko dio errekurtsogileari. Epaia hori apelaezina da.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

B) Jardunaldi bateko sailkapen ofizialari buruzko erreklamazioak egiteko, hiru egun baliodun izango dira, sailkapena bidaltzen denetik aurrera. Epe horretatik kanpo aurkeztutakoak ez dira aztertuko.

C) Euskadiko Eskola Jokoetan parte hartzeko egiten diren hautaketen gaineko erreklamazioak argitaratu eta hurrengo bi egunetan aurkeztu behar dira. Epe horretatik kanpo aurkezten direnak ez dira aztertuko.

Aipatutako erreklamazio guztiak ("A", errekurrituz gero) eta beste era bateko zeinahi idatziz aurkeztuko dira eta Arabako Atletismo Federazioko Batzorde Teknikoari bidaliko zaizkio. Idazki horrek data eta egiten duen pertsonaren sinadura jasoko ditu, bai eta pertsona horrek ordezkatzeko duen erakundearen zigilua ere.

11 · ARGIBIDE OROKORRAK

ARABAKO ATLETISMO FEDERAZIOA (A.A.F):

Helbidea: Amadeo García de Salazar plaza 2, 2.a - 01007 VITORIA-GASTEIZ (Araba)

Web orria: www.faatletismo.com

Posta elektronikoa: info@faatletismo.com / f.a.atletismo-dep.esc@hotmail.es

Telefonoa: 945132815

Faxa: 945157355

A.A.F.k iragarki taulan eta sistema informatikoen bitartez emango du ezagutzera arautegi honi lotutako guztia. Egiten zaizkion aldaketan aurka ezin izango da erreklamaziorik aurkeztu.

Argibideak posta elektronikoki bidez jaso nahi dituen erakundeak helbide elektronikoki eman behar dio A.A.F.ri.

12.- ESKOLA JARDUNALDIEN ANTOLATZAILEAK

Eskola jardunaldien antolatzaileek ekitaldia gertatu baino hamabost egun lehenago jakinaraziko dizkiete AAFko Eskola Kirolaren arduradunari (info@faatletismo.com / f.a.atletismo-dep.esc@hotmail.es) programa eta proben hurrenkera, joan-etorrien eskaerarako ezinbesteko izapideak arintzeko.

Probek kirol bakoitzerako araututakoa beteko dute; bestela, Eskola Kirolaren arduradunak egin beharreko aldaketak eta zuzendu beharreko hutsak jakinaraziko dizkio antolatzaileari.

Benjaminen krosa dela eta, antolatzaileak, gutxienez, heldu bat izango du lasterketa zuzentzeko. Halakorik izan ezean, Eskola Kirolaren arduradunari jakinaraziko dio lasterketa egin baino 15 egun lehenago, eta parte hartzen duten klubentzako antolatzaileak lagundu beharko dute zeregin horretan, hots, lasterketak zuzentzen.

13. -DIZIPLINA ARAUDIA

391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa izango da aplikagarri

